

NORANTZA

SABIN ARANA

Bizkaiko Trebakuntza eta Enplegu Departamenduko kidea

«Ideia berrien bitartez enplegu gehiago sortu nahi dugu»

Bizkaiko Foru Aldundiko Trebakuntza eta Enplegu Departamenduak, ekimen enpresarialen datu base bat oinarri, enplegua sortzea du xede nagusia.

AMAIA MUNDIÑANO

Enplegua sortzea lan nekeza izan ohi da, kasu askotan, noski, beharrezkoak diren neurriak hartzen ez direlako. Oraingoan, Bizkaiko Foru Aldundiak erroka horeen alde zerbait egitea erabaki du: ekimen enpresarialen datu base bat sortzea, alegia.

Zertan datza konkretuki ekimen hori?

Ekimen honen izena Bankidea da eta, ekimen enpresarialen datu base baten osaketaren bitartez, ideia berriak erabiliz, enplegua sortzea du helburua. Lehenengo pausua enpresa munduan murgiltzeko beharrezkoak diren ideien datu basea osatzea da. Horretarako, irailcan ideien lehiaketa jarriko dugu martxan. Bestalde, behin ideiak izanda, hauek martxan jartzeko interesaturik daudenak haiekin ezkontzea izango da bigarren pausua. Dena den, hau abiapuntua bada ere, urte osoan datu basea irekita izango da. Hau da, urtean zehar bertan ideiak sartzeko eta hauek eskuratzeko bideak irekita jarraituko dute. Dena den, oraindik aurrerago egin beharreko hainbat pausu erabat zehaztu gabe daude, baina aurrera jotzea da asmoa.

Nola gauzatzeko da datu basearen osaketa?

Osaketari dagokionez, era ezberdinak izango dira. Batetik, esaterako, Japonian, Estatu Batuetan eta Europan zehar sortzen ari diren enpresa, zerbitzu eta enpleguaren hobi berriak aztertu eta gure datu basean sartuko dituzte.

gu. Bestalde, jendeak ekarriko dituen ideiak bi multzotan banatu dira: batetik, norberak martxan jarri nahi duen ideia jasoko duen atala izango da eta, bestetik, beste batzuek ideia eskuratzeko aukera emango dutenak. Beraz, helburua kasu gutxietan berbera izanik, beraz datu basean egokitzeko garaian, era ezberdinak izango dira. Ondoren, Bankidea.com orrialdera jo eta interesaturik dagoenak, pausu batzuei jarraitu ondoren, ideia bereganatzeko aukera izango du.

Zein da azken finean ekimen honen zergatia eta xedea?



Monika del Valle

Ekimen honen hartzailaek banakoak, taldeak edota enpresak badira ere, oinarri nagusia langabezia dauden lizentziatuak dira. Zentzu horretan, gure asmoa, behin ideia kopuru egoki eta interesgarri bat izanda, haiei eskaintzea da, haiek ideia zehatz batzuekin nola identifikatzen diren ikusiz. Beraz, ideia berrien bitartez enplegu gehiago sortzea da helburua nagusia. Horretaz gain, halaber, munduan zehar sortzen eta kaleratzen ari diren enpresa zein produktu berriekiko zuzur egotea. Helburu hau lortu nahian, gurekin batera, besteak beste, Getxoko Esegune unibertsitatea dabil buru-belarri.

Zer ekarriko die ekimen honek enpresa munduari eta, oro har, Euskal Herriari?

Esan bezala, hasieratik gure nahia enpresa munduan ikusten genuen butsunea betetzea izan da. Oraindik honек enpresa munduari zein Euskal Herriari zer ekarriko dien esateko oso goiz dela pentsatzen dut. Izan ere, sortu berria da, ekimen oso berria da eta ez da inguruan halakorik ezagutzen. Epe labur batean datu basean zenbat ideia eta zein tankerakoak jasotzen diren ikusiko dugu, baina ekimenak nolako oihartzuna, erantzuna eta emaitzak emango dituen esaterik ez dago oraindik, denbora beharko da hori jakiteko. Hain zuzen ere, azken finean, apaltasunez lan egiteko beste modu bat eskaini nahi dugu ekimen honen bidez, besterik ez. Denborak esango du ekimen honetatik zer aterako den.

Zirotoka



Txillardegui

Aubry Andereari :

Ez nekien euskalerritarra zarenik. Orainxe jakin dut. Martine Aubry ministroa euskalerritarra ezetik, euskalduna ere bazaitugula. Eta euskaldun senditzen. Omen.

«Je dis toujours et partout que je suis basque», esan duzu.

Euskara ulertu ere egiten bide zenuen: «Ils parlaient basque entre eux , et à l'époque je me débrouillais», erantsi duzu ministro anderro horrekin. Urtero urtero, Mendikotara joaten omen zinen uda pasatzerik, «et j'arrivais à comprendre».

Hori bakarrik ez. Senitatez Mendikotakoa izanik (amaren aldetikako Lephailletarrak Xiberoako mendikotarrak dira, orain jakin dugunez), Pastoralak maite duzu lehen konprenitzen ere bai, berak dionez.

Eta duela zenbat urte Gotiñekoa ikusi ondoren, aurtengo udan Eskuilatakoa ikusten egon zara.

Horretaz gero, beraz, zuk ongi dakizu famili-transmisioa jadanik eten dela Iparaldean; eta Zuberoan bereziki. Hitz batzuk, Zuberoako euskara gaur Eronkerikoa orain dela 100 urte egon zen heinean dagoela. Gaiarre euskalduna zen; baina eronkeriarua euskalki hila da gaur.

Zer diozu honetat? Nola erakusten da eskoletan Zuberoan? Euskaraz ote? Zer funtzio betetzen du gaur euskarak han gaur eta orain dela hamar mende? Legetasun honetan euskara hiltzera donaduta dago.

Zuk baduzu Parisen guk ez dugun ahala. Euskararen lege egeera aldatzeko, presekiri.

Beha gaituztu.

AITZINDARIAK

Felix Likiniano
21 904 1982



ESKORTATZAN SORTURIK FAMILIARIK MONDRAGOERAT EGIN DU LASTER. BERTAN AMAK OSTATU5 EDEKI DIZU: LA TERNERA DEL INFIERNO.

... HANGOA, HORKOA ETA NEMENGOA ... NI EUSKALDUNA NAIZ BETITIK! SANUA!

MENDIZALE PORROKATUA, NATURAN LORRU GORRETAN IBILTZEAN LAKET 1721 DU BETA. LORRU GORRETAN IBILTZEAN PIKARRAI

1936: ESPAINIAKO MILITAR FAXISTAK ERROSOAN, LIBERTARIOK ETA BERTZE EZKERTIARROK AHAL, NOLA ATXIKITZEN ARI...

TXARIZOAK HARTU, SUA IXOTU ETA DANBAI JAURTITZEN GENDUZAN

COARRODEES !! QUE TIENEN CON DINAMITAAAN

AVANCE MARINERO JAGUNEKIN BAIEN TORPEDEOA BETETU, ETA MARIA CRISTINA GORTUTAN URDUNAK FUERATU EGIN DITU.

GREBA NAGUSI EGUNETAN TRONBEAK GERATZEN ARI ZEIN ASALTOTAKO GOARDEK PRESO DITXATU ETA LAISKI ZAFRATU DIZUTE

JAVSI BEHAR DAVENA JAUSI... ...AURBERA BOLIE!!!

40 URTETARAKO KORDENA EMAN DIOTE: ALCALA' ETA OZANA BARRIKADA METIS EZAGUTU DITU.

GERRA ONDOAN FRANTZIAKO ZIGOR ZELAIETATIK PASATA, BIARRITZEN KOKATU ZIGU LANEAN, IRUKITZEN, HIESLARI BERRIKI LAUTITZEN -KUTUNGI KONPARAZIO, PINTATZEN...

BERAK DIZU BIETAN JARRAI LOBO ASMATU

NIK JAKIXENAT BERBETAN, MINTZATZEN, ELEKETAN ETA HIZKETAN KOMUN ASKOTAN KAKA EGIN JAMATETA

Aizineko + Nabarrenkoxe